

**Maiatzaren 17a "LGTB fobiaren kontrako Nazioarteko Eguna"****Hezkuntza Komunitate osoari:**

LGTB fobiaren kontrako Nazioarteko Eguna¹, maiatzaren 17a, oso egun aproposa da, ikastetxe guztietan, aniztasun afektibo sexualari buruz hausnarketa egiteko eta planteatzeko behar-beharrezkoa dela prebentzio-neurriak hartzea, sexu edo genero identitatea aukeratzeko pertsona bakoitzak duen askatasunari erasotzen dion edozein iritzi, jarrera edo jokabide lesbofobiko, homofobobiko, transfobiko edo bifobikoren aurka jotzeko.

Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailean egun horrekin bat eginez, denekin batera ahaleginak egin nahi ditugu jokabide LGBTI fobia izango ez duen gizartea eraikitzeko. Bertan, gizonek eta emakumeek, sexu identitatearen kausaz baztertu gabe, nola jardungo duten eta nola bizi nahi duten erabaki ahal izango dute.

Jakin badakigu gero eta ikastetxe gehiagotan sistematikoki gaia lantzen ari direla, eta gainera egun horren inguruan ekimen asko egiten dela eta. Jakin badakigu, beste ikastetxe askotan maiatzaren 17ko egunaz baliatuz, hezkuntza komunitatean hausnartzeari ekingo diotela.

Hori dela eta, eta laguntza eskaintzeko, hezkuntza maila guztietako ikasleei eta hezkuntza komunitate osoari zuzendutako **Aniztasuna, Aberastasuna** izeneko esku-hartze proposamena eskuragarri jartzen da.

Proposamenaz gain, egun horretan eta ikasturtean zehar, gogoeta egiten laguntzeko materialak helbide honetan dituzue.

<https://sites.google.com/site/hezkidetzaplana/aniztasuna/sexu-aniztasuna>

Gutun honen bidez, aurreiritziak gainditzen laguntzeko eta elkarbizitza sustatzen eta bultzatzen duzuen inplikazioa eskertzen dizuegu. Dударik gabe, horri esker pertsonen arteko erlazio igualitariagoak eta atseginagoak garatzen dira.

Eguna pozez betea izango duzelakoan, agur bero bat.

Gasteiz, 2016ko maiatzaren 5a.

Cristina Uriarte Toledo

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA

¹ **Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna** gogoratzen da. Osasunaren Munduko Erakundeak (OME), 1990eko maiatzaren 17an hain zuzen ere, homosexualitatea eta transexualitatea gaixotasun mentalen ataletik kendu zituen, zientziari eta arrazoiari aurre eginez gizartean zeuden aurreiritzi historikoak gaindituz.